

Altza


Aurtengo udalekuak Araba aldean

Larraitz Garmendia (tfnoa.: 391267)

Kemetrontxo eta Adiskideak atsedeen taldeek prestatu dituzte udako ekitaldiak. Adiskideak taldekoak, Albenizera joango dira, Gasteiztik 25 bat kilometrora, uztaileko hamabostaldi oso bat igarotzera. Dagoeneko badakite 36 pertsona joango direla eta gehienak 8-13 urte bitarteko gazteak ditugu.

Kemetrontxo atsedeen taldeak aldiz, ireki berri du izenemate epea eta oraindik finkatzeke daukate uda egitarau honen zehaztasun ugari.

Hala ere argi ibili izena emateko, eta ez itxoin azken unerarte.



Hautsak harrotuz, laugarrena kalean

«Altza, hautsa kenduz-IV» liburuaren aurkezpena egingo du Altzako Historia Mintegiak, datorren ostegunean, hilak 12, 20.00etan Herrerako Auzotegian. Aurkezpen berean «100 años de Arzak/vinagres» gaiaz mintzatuko da Juan Mari Arzak bera.

Parte Zaharra

Ion Lopez (tfnoa.: 424528)

San Bernabe jaiak ekainean

San Bernabe jaiak ospatuko dituzte Abuztuaren 31 kalean dagoen Circulo Riojano elkartekoek. Ekainaren 7an hasi eta ekainaren 21a bitartean, musika eta dantza emanaldiak, mus eta julepe

txapelketak, otordu eta kaleko festa bereziek osatuko dute egitaraua.


Meza ezin eman uholdeen erruz

Parte Zaharrean ere uholdeak izan genituen. Kaian, 11, 13 eta 15 ataritan bizi direnak larri ibili ziren Urgulleko harritzar bat urak Paseo de

los Curas-eraino bota zuela eta. Etxeak hustu egin zituzten hasieran baina laister itzuli ahal izan zuten etxera.

San Bizente elizan ordea, obrak egiten ari direla eta teilaturik ez dago elizako zenbait puntutan, eta euri jasak urez bete zuen eliza. Ondorioz, igandean ezin izan zen meza entzun bertan.

Lur Entziklopedia Tematikoa



LUR

Jose Elozegi 110 • Tfnoa.: 40.00.17

PERFUMERIA
QUKERA
OPARIAK

Matia 15 • ANTIGUA • ☎ 21 69 62

1930ean sortua

Casa de Labores

Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak.

Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia